




abagadunea 'abagunea, egokiera'	«Galahadek ez du ihes egiteko abagadunerik ez ausardiarik...»	(33)
abaildu 'jausi, erori / jaitsi'	«...etxalde arraildu bat da estazioa, zeinera gatazkarik gabe abailtzen den gaua...»	(9)
abiatu 'nonora joateko bidean jarri'	«Eta ehun metrotako korrikalariak abiatzerakoan duen itxura egin zuen horman.»	(41)
adabakia 'ehunezko atala, txaplada'	«... adabakiak josi dizkiot...»	(58)
adaska 'abartxoa, arramatxoa'	«...gerizondoetan anpoloi gorriak ikusten ziren eta haurren bat adaska goiren batetara igona.»	(54)
adatsa 'ile multzo luzea'	« Adats beltz eta lizun bat du (...) eta sugar zurbil eta gori bat begietan, iluntasunean.»	(11)
agian 'beharbada, apika, ausaz'	«...eta bere aitaren ehorzketan egon berri da, agian .»	(10)
agorriila 'abuztua'	«...hantxe geratu nintzen pago makur baten azpian, agorrilaz gogoetan.»	(102)
ahaidea 'senidea, senitartekoa'	«Bart, ahaide negartiak aldendu zirenean...»	(11)
ahapeka 'isilean'	«Biraoak ahapeka jaurtiaz aldendu egin zen Xabierto...»	(65)
aholkua 'kontseilua, burubidea'	«...eta eskena huts honetatik behatuko du gaua iragaten, izarrei aholkuren bat galdetuaz.»	(10)
ahurkaz 'ahurkadaka, esku beteka'	«...bitxilore usaintsuak emanen dizkizut ahurkaz .»	(78)
ahurra 'esku barrua'	«...begirada bere ahurretara zuzentzen duenean.»	(12)
aiduru 'itxaroten, zain'	«Baina aiduru du zerbait ezkurdian...»	(77)
aitzindaria 'buruzagia, aurrelaria'	«Airean, kolorgetasun inanimatu eta triste bat da, beti, gauaren aitzindaria .»	(72)
akigarria 'nekagarria, ahitgarria'	« Akigarria da bizitza —pentsatu du— berunezko arratsetan.»	(11)
akitu 'unatu, nekatu'	«...haraxe abiatu zen <i>Acushnet</i> akitu hura, eustarri bakarraren bila.»	(23)
aldendu 'urrundu, urrutiratu, hastandu'	«Bart, ahaide negartiak aldendu zirenean...»	(11)
amarauna 'aramu sarea, armiarma ehuna'	«Polizien sirenak hots eta beldur amaraun bat bezala hedatzen dira hirian eta irteerako bideetan.»	(90)
amildegia 'erroitza'	«Eskuinetara gaiztainadi mendi bat zegoen eta, ezkerretara, amildegia ...»	(55)
amini bat 'pitin bat, apur bat'	«...Xabierto ez zuen burua amini bat ere altxatzen.»	(65)
amoltsua 'maitasunezkoa'	«...sugar ezti eta laztan amoltsuak .»	(74)
amore eman 'segitu, kasu egin'	«Lemazainak, dei misteriotsu bati amore emanaz ...»	(19)
anartean 'bitartean'	«Ginebra, anartean , biluzik dago bere ohe zabalean...»	(31)




anpoloia 'gerezia' (fruitu mota)	«...gerizondoetan anpoloi gorriak ikusten ziren...»	(54)
anpulu 'malkoa / aire globulua'	«...zilar eta izotz anpulu dirdiratsuak bailiren.»	(77)
antzara 'ahate gisako hegaztia'	«...morroi bilakaturiko bufoiaren begiak grisak dira, antzara biren modukoak.»	(31)
antzutasuna 'agorra, fruitu gabetasuna'	«Munduaren doi-doi bestaldean umotzen dira gerizak, antzutasuna baino ez da hemen geratu.»	(13)
apatxa 'animalien behatz arraildua, apoa'	«Edan du zaldiak eta, uhalik tiratu gabe, berez doa, bere apatx ferratuez horbela zapalduaz.»	(28)
argudioa 'arrazoia, arrazonamendua'	«Liburu honetako idazleak bere argudioak hausnartu bitartean...»	(43)
arraildu 'arrakalatu, pitzatu'	«...ezin duzu jakin zer den zorigaitza (...), arrailtzen ari den baserri batean lanek itorik bizitzea...»	(50)
arrastiria 'arratsaldea'	«...iparraldeko itsas hegiaren arrastiri batean...»	(114)
arrea 'kolore iluna, lurra halakoa'	«...leihotik so eginez gero, teilatu arre eta zuhaitz ihar baten adaskak ikusten dira behean...»	(81)
arreguratu 'kexatu, arduratu, larritu'	«—Ez arreguratu , Maria —esaten du Ezekielek—, laster amaituko dira ezbeharrak.»	(52)
artezean 'zuzenean'	«...hasieran hogeiren bat urrats egiten zituen artezean ...»	(76)
artizarra 'egunsentiko izarra'	« Artizarra agertu da ortzean.»	(61)
artzapezpikua 'apezpiku burua'	«Latinez mintzatu zen tribunaleko artzapezpikua ...»	(107)
asaldatu 'sumindu, haserretu'	« Asaldatu eta loak hartzen duen monstruo da itsasoa.»	(21)
asuna 'belarki mota'	«...erreka barrenean dabil, kainabera eta asunen artean, elur eta izotz guneak zapaldu eta landareetako ihintzagarra astinduaz.»	(30)
atabala 'danbortxoa, bi zotzez jotzekoa'	«Euriak, orain, atabala baten moduan (...) jotzen du leihoko kristal zabala.»	(127)
atond 'prestatu, apailatu'	«...mahai gaina atond eta boltsan sartu du gutunen bat...»	(82)
atorra 'alkandora antzekoa'	«Udaberriko neskatilen ator mehe eta bular ikara...»	(75)
atramada 'hesia, enparaua'	«Uhainek untziaren gainetik egiten zuten salto, otsoek arditegietako atramaden gainetik bezala.»	(20)
atxeki 'eutsi, oratu'	«— Atxeki ezazu ondo bele hori, Martin...»	(50)
atxurketa 'aitzur lana'	«Anderea, atxurketa gelditu eta Asuni begira geratu zen...»	(65)
azpigarria 'ihaurkina, belarra, orbela'	«Gero, esnea jaitsi behar zuen, azpigarriak zabaldu, eta elikadura eman abereei.»	(57)
bafora 'untzi mota'	«Kaian dauden emakumeen ahotsak altxatu dira, bafora batzuk itzultzen ari direlako.»	(126)
baldarra 'ganoragabea'	«...egoera horretan gauzarik gorenak bezala baldarrenak ere izkiria ditzakeela.»	(74)




balisa 'jaki-edariak gordetzekoak'	«Ganbaretako balisak ireki zituztenean...»	(21)
barea 'lasaia'	«...egarriaz, ur ilun eta barera makurtu da.»	(27)
barreiatu 'zabaldu, sakabanatu'	«...milaka izar tipi barreiatu rik ortzean, zilar eta izotz anpulu dirdiratsuak bailiren.»	(77)
bart 'igarotako gaua'	«...sutondoko aulkitxoan eseri da, bardako enborretan sugarrak berpizten entseiatzeko.»	(29)
bart 'igarotako gaua'	« Bart , ahaide negartiak aldendu zirenean...»	(11)
batez ere 'batik bat'	«...eta brisara hozkirri bat egiten du (...) egunsentiaren aurreko orduan, batez ere .»	(13)
begardoa 'herese mota, XIII-XIV	«Eta zilarrezko gurutzetxo hura begardoen aurkako ezpata izanen zela...»	(100)
behatu 'so egin, begiratu'	«...eta eskena huts honetatik behatuko du gaua iragaten, izarrei aholkuren bat galdetuaz.»	(10)
behaztopatu 'estropozu egin, tupust egin'	«...auzoko haurrek galduriko jostailuetan behaztopatu denean.»	(75)
behelainoa 'lainoa, lainabera'	«...uhainak behelaino bero eta sarratua bihurtuaz.»	(22)
behiala 'lehen, aspaldi'	«Oroitzapen dira jadanik behialako desirak.»	(73)
behitzaina 'unaia'	«...zelaietarantz jaistean, behitzain bati galdetu nion...»	(103)
belea 'erroia' (txori mota)	«Itzuli egiten denean bele bat dakar eskuan...»	(49)
berri 'duela gutxi'	«...eta bere aitaren ehorzketan egon berri da, agian.»	(10)
berunezko arratsa 'arratsalde iluna'	«Akigarria da bizitza —pentsatu du— berunezko arratsetan .»	(11)
bidenabar 'bide batez'	«Idazlea, bidenabar , ez zen bere buruaz ere sobera fidatzen...»	(40)
biharamuna 'hurrengo eguna'	«... biharamunean erreko zituztela han bertan...»	(103)
biraoa 'araoa, maldizino/hitz gorria'	« Biraoak ahapeka jaurtiaz aldendu egin zen Xabierto...»	(65)
birigarroa 'txori mota'	« Birigarro flakatu bat pausatu da ezkurrondoaren arrama luze batean.»	(73)
bitsa 'aparra'	«...painuaz kentzen du bitsa eta kamararantz dator...»	(89)
branka 'itsasuntzien aurrekaldea'	«Kalatxori bat agertu zen branka aldean hilik, zauririk gabe.»	(20)
burezurra 'buru soilunea'	«...egunetik egunera nabarmenago duk burezurra .»	(44)
buztarria 'uztarria, idi bikotea lotzekoa	«...han ikusi nituen hereseak (...), buztarri eta kateaz loturik...»	(104)
buztu 'puztu, haizez bete, hanpatu'	«...brisara mehe batek bultzatzen zuen, bela tipiak puztuaz .»	(23)




dakusa 'ikusten du'	«Ginebrak, zaldi gainetik, ispilu batean bezala dakusa bere burua.»	(27)
dario 'isurtzen zaio'	«Xarma ezti eta malenkoniatsu bat dario .»	(11)
deliberatu 'erabakitzekotan gogoetatu'	«...neskatila galduaren xerka abiatzea deliberatu du...»	(76)
desarratu 'bota, jo'	«...tiro bat desarratzen du Mikelek atzerantz...»	(86)
destolestu 'desdoblatu'	« Destolestu egiten ditu galtzak, zabalak.»	(59)
desubeldu 'kolore ubela edo morea galdu'	«eguratsak hiria desubeltzen duen orenean...»	(116)
dizdizaria 'dirdaitsua'	«...sugegorri bat agertu zaio eta, bere begi dizdizari eta letagin zuriez beldurturik, Etxabururantz itzuli da Fool.»	(30)
doi-doi 'ozta-ozta, justu-justu'	«Munduaren doi-doi bestaldean umotzen dira gerizak, antzutasuna baino ez da hemen geratu.»	(13)
duela 'orain dela'	«—Azkeneko berria duela aste bete hartu nuen...»	(28)
ebatsi 'ostu, lapurtu'	«Mikelek poltsa urdinean sartzen du goardiari ebatsiriko errebolberra.»	(86)
ebatu 'oratu, heldu'	«Andere beltz lodi bi doaz, elkarren besoa ebaturik ...»	(91)
egundo 'sekula, inoiz ez'	«Eta egundo zapaldu gabeko basamortua zen itsaso urdin amaigabea.»	(24)
egunsentia 'goiznabarra, egunaren hasiera'	«...eta brisara hozkirri bat egiten du (...) egunsentiaren aurreko orduan, batez ere.»	(13)
eiharra 'iharra, lehorra, sikua'	«...zuhaitz eihar baten adaskak ikusten dira behean...»	(81)
elezaharra 'ipuina'	«Berak elezahar bat kondatu zidan...»	(102)
emeki 'astiro, apurka, piskanaka'	«...ortzearen gorritasun suabea gorritzen eta zurbiltzen ari da emeki-emeki .»	(71)
enara 'elaia' (txori mota)	«Jadanik ez da bere begi nabarretan galbururik, ahuntzik, enararik isladatzen.»	(9)
entelegatu 'aditu, ulertu'	«Zaila da gauzen funtsa atzimatea (...) beren arima entelegatzea .»	(114)
entseiatu 'saiatu'	«...gauzen ñabardura poetiko ezkutua azaltzen entseiatzea ...»	(42)
eragin 'mugitu'	«Goilarekada bat ezti, gorriska eta lodia, edalontzira isuri eta ur ilunean eragin .»	(52)
erantzi 'soinetik kendu'	«Arropak aldatu, zapatilak erantzi eta abarkak jantzi zituen ezkaratzean.»	(57)
eraso 'oldartu, atakatu'	«...labana beltza altxatuaz eraso zuen gibeletik.»	(45)
erauntsi 'ekaitza'	«Errekak ur handia zeraman, bezperan erauntsia izan zelako.»	(55)
erauzi 'indarrez atera'	«Laster ebakiko dute zuhaitz hori ere; ebaki ez, erauzi , sustrai eta guzti erauzten dutelako.»	(81)




erbestea 'atzerria, deserria'	«Menturen aroa iragan eta, beren erresuma guztia sakabanatu zenean, erbestera joan ziren heroeak.»	(27)
erdi mina 'erditzerako mina'	«...haurgintzako erdi minez ...»	(10)
eria 'gaisoa'	«...han ikusi nituen hereseak, animalia erien antzerako gizaseme batzuk...»	(104)
eriden 'aurkitu, idoro'	«...inon ene desirak ezin eridenaz , finean akiturik etsi naiz bidaiaz.»	(91)
erio 'jario, isuri'	«...lur gorriaren koloreaz erortzen da, lokatz ura, erio lodian.»	(63)
ernegatu 'bere onetik atera, sumindu'	«...eta jitoan utzi zuten fatu txarren bat ernegatu beldurrez.»	(22)
errainua 'izpia'	«Eguzkiaren errainu guziak zeuden desagerturik...»	(65)
errapea 'ugaztunen erro ingurua'	« Errape handia ez zen arren, aski zen hura, behi nabar argalaren emana (...) etxe bitara saltzeko.»	(57)
errautsa 'erretako hautsa'	«...urgainean kulunkaturiko errauts piloak ziruditen.»	(23)
errimea 'bizia / trebea, moldatsua'	« Errimeegi aditzen da sala estuan Bob Dylan, armonikaz.»	(91)
esamesa 'zabaltzen den gezurra'	«Gero, erreginaren eta Lanzeloten arteko erlazio lizunen esamesak zabaldu ziren...»	(28)
eskifaia 'tripulazioa'	«Hondatu eta etsiturik zihoan eskifaia ...»	(22)
estaia 'solairua'	«Bulegoa estaia altuan dagoenez...»	(81)
estarta 'bideska'	«...Hormaetxerantz gidatzen du bere zaldia (...) estarta bigun bat segituaz.»	(28)
etxaguntza 'jabegoa, etxaldea'	«...Harregiko etxaguntzaren gainbehera...»	(54)
etxaldea 'etxea eta ingurua'	«... etxalde arraildu bat da estazioa, zeinera gatazkarik gabe abailtzen den gaua...»	(9)
eustarria 'euskarria, sostengua'	«...haraxe abiatu zen <i>Acushnet</i> akitu hura, eustarri bakarraren bila.»	(23)
ezabatu 'desagertarazi, ezereztu'	«...sute edo eurite horietako batek ezaba ditzan arte.»	(99)
ezbearra 'zoritzarra'	«—Ez arreguratu, Maria —esaten du Ezekielek—, laster amaituko dira ezbearrak .»	(52)
ezkaratzea 'ongi etorri aretoa/sukaldea'	«...Foolek ez du inor aurkitu, ez atarian, ez ezkaratzean , ez sukaldean, ez salan.»	(31)
ezkila 'kanpaia'	« Ezkilak konpontzen ari ziren kanpandorreen.»	(55)
ezkurdia 'haritz,pago,arte...arboladia'	«Orduan, egunsenti gardenean, ezkurdian barrena noraezean ibiliko da Lorelei...»	(71)
ezkutatu 'ostendu'	«Eguzkia ezkutatu egin zen mendien bestaldean...»	(39)
fatua 'zoria, adurra'	«...eta jitoan utzi zuten fatu txarren bat ernegatu beldurrez.»	(22)




funanbulua 'ekilibrista, harian orekan ibiltzen'	«alanbre luze eta imposible bat tentsatzen du funanbuluak hegitik hegiraino.»	(116)
galarrena 'ekaitza'	«...gau osoa eta goiza iraun zuen galarrena amaigabe haren erdian...»	(20)
galburua 'gari landarearen burua'	«Jadanik ez da bere begi nabarretan galbururik , ahuntzik, enararik isladazen.»	(9)
galdetu 'eskatu / itaundu'	«...eta eskena huts honetatik behatuko du gaua iragaten, izarrei aholkuren bat galdetuaz .»	(10)
galtzaria 'galtzerdiak lotzekoa'	«Gero, galtzariko zinta askatu eta gorpu zaharraren uniformeko sakelan sartu zuen...»	(11)
gangarra 'harroa, puztua'	«...olatu gangarrean pausatuko dela dirudiela...»	(111)
gardena 'garbi-garbia, transparentea'	«Atzekalderantz amildegia eta, han behean, erreka garden bat...»	(27)
garitza 'gari arloa'	«Espaloietan ibiltzea ez da —esan diote— gariak zangoak laztantzen dizkizuneko garitzetan ibiltzea...»	(10)
gatazka 'tirabira gogorra'	«...etxalde arraildu bat da estazioa, zainera gatazkarik gabe abailtzen den gaua...»	(9)
gatibua 'preso'	«Berak ere, bere gorputz traketsaren gatibuan , Ginebra maite du...»	(31)
gaubeila 'hildakoari lagun egiten'	« Gaubeilan egon zen (...) lehen eguzki errainuek zeharkatu zuten arte.»	(11)
gauhontza 'gaueko hegazti harrapakaria'	«“Zakurrak uluka eta gauhontzak intzirika ari badira, hilurren dago norbait”...»	(56)
geldoa 'motela'	«Hari mehe eta geldotan hedatzen da kriseilu ahul baten argia (...) miarma sare baten antzera.»	(9)
gertu 'prest / hurbil, hur'	«...filibusteroa izanen nauk, galeoiko dama espainola bahitzeko gertu ...»	(41)
gibela 'atzea'	«—Hemen, hire itzala, hementxe (...) hire gibelean niagok.»	(40)
gogaikarria 'aspegarria'	«...komediante galdu baten gisan agertu eta solastatu, gogaikarri egin arte.»	(45)
goiztiria 'goizaldea'	«Marinel etsituek, goiztirietan ihintza biltzeko modua aurkitu zuten...»	(23)
goraina 'belarra ebakitzeko lanabesa'	«... gorainak harriarekin egiten zuen intziria entzuten zuen.»	(64)
gori 'beroaren beroaz gorri dagoe'	«...eta ezin zitekeen irlatxo sumindu hartara gehiago hurbildu, harri urtu eta goria jaisten baitzen...»	(22)
goroldiotu 'goroldioz bete'	«...ezkila beltz mutu bat aterpean zintzilik, eta zurezko aulki zahar eta hautsi bi goroldiotzen .»	(13)
gotorra 'gogorra, sendoa'	«Ezkila gotor batek hamabi dei egin zituen.»	(106)
haga 'langa'	«Kalatxoriek, hagen artetik silioka, luzaroan lagundu zuten...»	(19)
halaber 'era berean, baita ere, orobat'	«Izan daiteke, halaber , bere senarraren zain etorritako andere bat, Arantxa.»	(11)
hantu 'harroa, harroputza'	«...itsaso hantuarekin ari da borrokan...»	(128)




haria 'firua, jostekoa'	« Hari mehe eta geldotan hedatzen da kriseilu ahul baten argia (...) miarma sare baten antzera.»	(9)
harkaitz 'haitz handi eta garaia'	«Mugarrako harkaitz barrenean, iratze gorrituz estaliriko mendi magalean, arroka bat datza...»	(27)
harra 'zizarea, kotxoa'	«Ganbareta ko balisak ireki zituztenean, harrez beterik aurkitu zituzten.»	(21)
hasperena 'zinkuria'	«Ez daki tristurazko zotinak ala plazerezko hasperenak diren...»	(31)
hatsa 'arnasa, airea'	«...hiriko hats grisez betetzen zaio bularra.»	(85)
hatsa 'kiratsa, sunda'	«... hatsa zerion urari...»	(20)
hatza 'atzamarra, behatza'	«Egunsentiak larrosa hatzez eman dio neguko eguzkiari irteera...»	(30)
haurgintza 'haurra edo umea egin'	«...haurgintzako erdi minez ...»	(10)
haurridea 'neba-arreba'	«... haurrideetan zazpigarrena delako, eta hargatik dela aztia.»	(61)
hausnartu 'gogoetatu'	«Liburu honetako idazleak bere argudioak hausnartu bitartean...»	(43)
hedatu 'zabaldu'	«Hari mehe eta geldotan hedatzen da kriseilu ahul baten argia (...) miarma sare baten antzera.»	(9)
hedea 'iraupena, luzera'	«“...zure adats beltzaraneko gau hedetan etzanan naiz.»	(74)
hegaldatu 'hegaz egin, hegan egin'	«Ez du kroakik egiten, ez da hegaldatzen ...»	(49)
herabe 'beldurti, izukor'	«Eta epai une batean bezala isiltzen dira biak, herabe ...»	(33)
higatu 'gastatu'	«“Ez dut gela zoko honetan higatu nahi”, pentsatu du...»	(76)
higitu 'mugitu'	«Ezkurrek, historik gabe eta haizeak higituak , otoitzean ari diren gorpezurrak dirudite.»	(73)
hilurren 'hilzorian'	«“Zakurrak uluka eta gauhontzak intzirika ari badira, hilurren dago norbait”...»	(56)
hitsa 'goibela, tristea'	«Lanparadietako bonbila hitsek hornitu egiten dituzte karririk argitu baino gehiago.»	(74)
hondarra 'azken arrastoa, hondakina'	«Sartaldeko oskorriak iragan errainuen hondarrak erakusten ditu...»	(71)
horaila 'horia, beilegia'	«Dorretxetik hurbil, adats horaileko andere bat dabil, Ginebra...»	(27)
hornidura 'adornua'	«...izarrak, sekula aldatzen ez denaren hornidura .»	(36)
hozkirria 'freskoa'	«...eta brisara hozkirri bat egiten du (...) egunsentiaren aurreko orduan, batez ere.»	(13)
huntza 'huntzorria, landare igokaria'	«...hormak arraildurik, huntzaren hazleku.»	(56)
hutsala 'hutsa, baliorik gabea'	« Hutsala da bizitza neskatilaren begirada baten aldamenean.»	(74)




ibarra 'harana'	« Ibar guzira hedatzen zen gauze igelen kantua...»	(55)
igarri 'antza eman, nabaritu'	«Urdindurik igartzen zaio adatsa...»	(13)
igorri 'bidali'	«...egunen batetan gauza zaharrak erretzeagatik fatuak igorri ohi dituen sute edo eurite horietako batek ezaba ditzan arte.»	(99)
iguriki 'itxaron, zain egon'	«...han norbaitek azken mosua emateko igurikatuko balu bezala.»	(77)
ihardetsi 'erantzun, arrapostu'	«—Gehiago agertzea nahi du? — ihardetsi zuen galderaz ahotsak...»	(39)
ihintza 'garoa, iruntza'	«...goiztirietan ihintza biltzeko modua aurkitu zuten...»	(24)
ihintzagarra 'ihintza, garoa, iruntza'	«Belatzea ihintzagarrez bezala adatsa ur tanta zuriskaz estaltzen zaionean ...»	(87)
ilaina 'zaldien lepoko ile luzea'	«Eta malko bat isuri du Ginebrak, kristaltxo baten antzera erori zaio masailean behera, zaldiaren ilain zurietan galtzera.»	(28)
iltzatu 'josita geratu'	«...gonatxoa arantzetan iltzaten zitzaiola.»	(64)
inozoa 'leloa, tentela'	«—Zergatik egiten dik negar inozo horrek —esaten du amak.»	(52)
intzirika 'garrasia, oihu gogor bizia'	«—Egun on, Ezekiel —esaten du amak—, hemen dakartzut muti-koa, beti intzirika .»	(49)
ipurtagia 'argi intsektua'	«Suak, finean, itzali egiten dira, gauerdia oinek zapalduko ipurtagiak bailiren.»	(35)
iratzea 'ira, garo multzoa'	«Mugarrako harkaitzaren barrenean, iratze gorrituz estaliriko mendi magalean, arroka bat datza...»	(27)
iraun 'segitu, jarraitu'	«...ahotsak gorputzik gabeko hizlari legez mintzaldia iraun zuen artean...»	(39)
irazeki 'biztu, iziotu'	«...sua irazekitzeko agindu zuen tribunalak...»	(107)
irristatu 'irrist egin, labaindu'	«...errekasto garden bat, landare umel eta harritxo borobilduen artean irristatzen .»	(27)
isuri 'bota / erori'	«...edalontzi batetara isurtzen du belar ura...»	(52)
itogina 'barrura jausten diren tantak'	«...blai utzi baitzuen itoginez eta arrailduraz zulaturiko etxe zaharra.»	(58)
itsasbelarra 'auka'	«...masta nagusiak erauzirik, untzigaina itsasbelarrez lohiturik.»	(20)
izara 'maindirea'	«Marfila izaren gainean...»	(31)
izarloka 'une batez erortzen ikusten den	«Izar argitsuak desagertu eta izarloka batzuk somatzen ditu.»	(78)
izeki 'biztu, iziotu, irazeki'	«Ginebra bere gelara igon da, hiru besoko kandelairu bat izeki du, eta ispiluaren aurrean eseri da.»	(29)
iztaia 'izter-sabelaren elkargunea'	«...esnea biltzen ihardun zuen, behiaren iztaian sostengatu eta, hatzez zis-zas eginik.»	(57)
izterra 'hankaren goi zatia'	«Ia eserita dago mahai gainean ama, gona izter gainera du altxaturik...»	(51)




izurdea 'gizurdea, arrain ugaztuna'	«Kalatxoriek (...) luzaroen lagundu zuten eta izurdeek ere, egun oskarbi eta gau izartsuan...»	(19)
jabegoa 'propietatea'	«...bertzeak jabegorik ez zutela (...) eta lapurtu ere berdin egiten zutela...»	(104)
jalgi 'jaiki, altxatu'	«Lehen argiarekin jalgi da Fool...»	(30)
jaurtiki 'indarrez bota, iraitzi'	«...maindire zuri batetan bildurik jaurti zuten itsasora.»	(21)
jauzi 'saltoa'	«Surtara begira daude, jauzi eta benedikaziorik gabe, isilean...»	(35)
jitoan 'deriban, norabiderik gabe'	«...eta jitoan utzi zuten fatu txarren bat ernegatu beldurrez.»	(22)
jostorratza 'josteko orratza'	«—Eurek ez dute jostorratzik? »	(66)
kadira 'aulki mota'	«Aspaldidanik gordetako kazeta sortak, zurezko panpina batzuk, familiaren elizarako kadira zaharra...»	(35)
kalatxoria 'kaioa'	« Kalatxoriek , hagen artetik silioka, luzaroen lagundu zuten...»	(19)
kamomila 'mantzanila, belar mota'	«...belarra eta kamomila sortzen ziren garbi-garbiak.»	(66)
kapera 'eliza txikia/alboko aldarea'	«...sainduaren irudia merkatari batek (...) harkaitz honetara ekarri zuen, eta beretzat egin kapera .»	(101)
kardantxiloa 'gardantxilo' (txori mota)	«eguzkitan galdu da kardantxiloa ...»	(118)
katagorria 'urtxintxa'	«Bestalde, lau erreal ematen omen zituen gauhontz, edo katagorri , edo sagarroi harrapatu bakoitzagatik...»	(57)
kolorgetasuna 'kolorerik eza'	«Airean, kolorgetasun inanimatu eta triste bat da, beti, gauaren aitzindaria.»	(72)
koroa 'buruko ohorezko uztai biribila'	«Arthur, bere urrezko koroa erantzi eta armairu apalean utzi ondoren...»	(29)
kriseilua 'oliozko argi ontzi arrunta'	«Tabernariak kriseilua izeki du...»	(123)
kulunkatu 'zabunkatu, erritmoz mugitu'	«...aldendu egin zen Xabiartxo, bere urde ipurdia kulunkatuaz .»	(65)
kuttuna 'poltsatxo txikia'	«Asunek ukitu egin zuen sama inguruan zeraman kuttuna .»	(56)
labana 'ganibeta, kutxiloa'	«...uhainak laban bortitz batez bezala ebakitzen ziren untziaren aurrean.»	(19)
laboraria 'nekazaria'	«...heresia hedaturik zegoela erran zigun, hedaturik zegoela laborari eta oihalgileen artean...»	(99)
laket 'atsegin, gustagarri'	«Ez zaio laket hiria, egunik egun itxuraldaturik ere bere burua harritzeko gai ez dena.»	(77)
lanbroa 'zirimiria'	«...leihoaren bestaldean erortzen den lanbroari begira.»	(81)
lantzean behin 'noizik behin, noiz behinka'	«...errepikatzen zuen kapitainak lantzean behin ...»	(22)
larderia 'izua, beldurra, larritasuna'	«...eta euren larderia guzi hori itzal errebelatu baten asmo bat izan dela ...»	(44)




larrutan aritu 'amodioa egin'	«...gauetz basoetan larrutan aritzen zirela...»	(104)
larua 'argia / horia, beilegia'	«Neskatila begi larua .»	(73)
latsa 'ur gutxiko errekatxoa'	«...lehenago sagastiko latsa iragan behar zen.»	(64)
lausa 'lauza, harri zapala'	«...estartak harri lausez eginiko xenderari uzten baitzion lekua.»	(64)
lausotu 'lainotu'	«...begiak lausotu eta ortzemugarantz begira.»	(22)
lazgarria 'beldurgarria, izugarria'	«...apaiz bat, latinez, oihu lazgarriak jaurtiaz.»	(103)
laztandu 'ferekatu, xerak egin'	«Espaloietan ibiltzea ez da —esan diote— gariak zangoak laztanten dizkizuneko garitzetan ibiltzea...»	(10)
leia 'izotza'	« Lei haize bat ailegatu zen lehenengo...»	(20)
lekorea 'kanpoaldea'	«Bakoitzak bide bat hartzen du atari ilunetik lekorerara ...»	(94)
lemazaina 'itsasuntzi gidaria'	« Lemazainak , dei misteriotsu bati amore emanaz...»	(19)
letagina 'hortz zorrotza'	«...sugegorri bat agertu zaio eta, bere begi dizdizari eta letagin zuriez beldurturik...»	(30)
lilura 'asmazio / xarma'	«—Baina zalantzan niagok (...) lilura bat ez ote haizen edo.»	(40)
linburto 'murgildu'	«Kehekada zuriska linburtzen da airean...»	(67)
lizuna 'zantarra, lizuna'	«Gero, erreginaren eta Lanzeloten arteko erlazio lizunen esamesak zabaldu ziren...»	(28)
lohia 'zikina'	«...estazio lohi honetara etorri da...»	(11)
lokatza 'basatza'	«...lur gorriaren koloreaz erortzen da, lokatz ura, erio lodian.»	(63)
lumatu 'hegaztiei lumak kendu'	«Hiri honetan ez dago oilarrik, lumatu eta samatik eskegi batzuk salbu...»	(81)
magala 'mazela, malda'	«Mugarrako harkaitzaren barrenean, iratze gorrituz estaliriko mendi magalean , arroka bat datza...»	(27)
mailadia 'eskailera'	«...eskaileretan behera jaisten da, horma eta mailadi ilunen artean, astiro...»	(71)
maindirea 'izara'	«Painelu zuria begietan ipintzen du amak. Kristal bustia, maindirearen azpian.»	(50)
malenkoniatsua 'tristurazkoa'	«Xarma ezti eta malenkoniatsu bat dario.»	(11)
malgua 'biguina, moldakorra'	«Marfila izaren gainean, marfil malgu , ikarati eta amoltsuzkoak dira beren menbroak.»	(31)
malkarra 'eremu aldapatsua' altakurtsua'	«...aldats goran, bideska malkar eta zail bat Erro alderaino.»	(54)
maluta 'mataza, elur zatitxoa'	«Elurte handia eginen du goizaldean eta ez dira malutak urtuko...»	(71)




masaila 'matrail, mazela'	«Negar egiten dut, orain gehiago, eta zaflada bat ematen dit amak masailean .»	(49)
masta 'erdiko habe biribil luzea'	«... masta nagusiak erauzirik, untzigaina itsasbelarrez lohiturik.»	(20)
masusta 'sasien fruitu beltz jangarria'	«...begirada bide saihetseko sasi masustetan galdurik...»	(56)
mende 'menpe'	«...geratuko dira, agian, liburuen ganbaran, hautsaren eta sitsen mende ...»	(99)
mendrea 'ahula'	«Landare more eta mendre batzuk harri grisen artean...»	(9)
miarma 'armiarma, aramu'	«Hari mehe eta geldotan hedatzen da kriseilu ahul baten argia (...) miarma sare baten antzera.»	(9)
mihura 'garau zurizko landare bizkarroia'	«...errekasto gardenak, mihura eta erabelarrak iragan nituen.»	(101)
mirabea 'otseina, zerbitzaria'	«Gauak mirabe ezartzen ditu ilunbeetara babesik gabe irteten direnak...»	(76)
miztoa 'pozoia / sugeen mihia'	«—Martintxorena ez delako sendatzen, ez errabia, ez sugeen miztoarena , horiek sendatzen ez direlako —esaten du Irenek.»	(62)
muinoa 'mendiska'	«Egungentziak larrosa hatzez eman dio neguko eguzkiari irteera, Santikurutzeko muino elurreztatuen gainera.»	(30)
nabarra 'beltzarana, ilun samarra'	«Jadanik ez da bere begi nabarretan galbururik, ahuntzik, enararik isladatzen.»	(9)
nafarrerria 'gaisotasun itsaskor larria'	«...xaketa beltzez jantziriko gizon bat ipintzen da, nafarreriaren arrastoak aurpegian...»	(91)
nehor 'inor'	«...ez zen nehor izerditu.»	(101)
neskutsa 'dontzeila, birjina den emakumea'	«Amodio ipuin bat idatzi zuen aspaldian, neskuts batez maitemintzen zen agure baten istorioa...»	(75)
ñabardura 'xehetasuna'	«Zenbat ordu paperak zirriborratzen, zenbat sentimendu ñabar- dura ikerturik...»	(72)
odoluzkia 'almorrana'	«...“geure gogoetak, geure seme-alabak, geure poema ulergaitzak, geure odoluzkiak ”...»	(83)
ohi 'izandakoa'	«...armadako buruzagi ohiaren gorpua zerraldoan etzanik begiratzeko itzuli da.»	(11)
oilaritea 'oilarraren kukurruku ordua'	« Oilaritearekin , joateko ordua zuela esan zidan.»	(118)
oinazea 'sufirimendua, mina'	«Egun bitan hil zen kapitaina, kalentura eta oinazetan ...»	(23)
oinotsa 'oin zarata'	«...Etxaburu dorreko zurezko zolatan bere oinotsa , oinots beti berregin eta azkenik gabea...»	(32)
oldartu 'matxinatu'	«...populua oldarturik zebilela zioten handik etorritako merkatariek.»	(99)
onddoa 'perretxikoen gisako landarea'	«...lizarretako onddoen usaina du.»	(52)
ondu 'heldua, umoa'	«...ederra da oraindik, bere gorputz ondu eta begirada lasaian...»	(27)
oratu 'heldu, eutsi'	«Isildu egiten naiz oratzean .»	(49)




orena 'ordua'	«Orain, bulegoa herstekeko orena iristen ari denez...»	(81)
orgatila 'eskorgatxoa, karretila'	«Eta orgatilan eseri zen aguretxoa, irriño batekin, solaserako.»	(66)
oskarbia 'zeru garbia'	«...eta izurdeek ere, egun oskarbi eta zero izartsuan...»	(19)
ostadarra 'ortzadarra, ostarkua'	« Ostadar usaina dago airean, eta ez dago ostadarrik.»	(59)
ostu 'lapurtu, ebatsi'	«“Lehengo usadio guziak ostu dizkigute”...»	(55)
otean 'agian, beharbada'	«...ahazturaren abiapuntura itzultzeko, otean »	(120)
otu 'iruditu, uste izan'	«...hura harrapatu behar genuela otu zitzaigun.»	(125)
pagadia 'pago multzoa, basoa'	«Orduan, pagadirantz doa morroia.»	(31)
sagarroia 'kirikiñoa'	«Bestalde, lau erreal ematen omen zituen gauhontz, edo katagorri, edo sagarroi harrapatu bakoitzagatik...»	(57)
sagastia 'sagarrondo multzoa'	«Ginebraren senarra eta morroia sagastian daude, sagar umatuak batzen...»	(29)
saihestu 'itzuri egin / desbideratu'	«Hor dabil, hain oker airean, saguzar urduri bat hari elektrikoak doi-doi saihesten .»	(85)
salbaia 'basatia, hezi gabea'	«Hegazti salbaiak laku izoztuen gainean ari dira zirkulutan hegatsez.»	(72)
saldoa 'multzoa, aldra, araldea'	«...eta bidazti saldo ezezagunak ere.»	10
sama 'iduna'	«Asunek ukitu egin zuen sama inguruan zeraman kuttuna.»	(56)
sardea 'korta zein soroko lanabesa'	«Usteldu orduko haizatzen ari ziren belarra mutiko eta andere batzuk, sardetan altxatu eta airean erortzen utziaz.»	(54)
sargoria 'eguraldi bero-beroa'	«...landare egarrientzako euria itxaroten iragaten ditugu sargoriak eta euria dakarrenean uholdea dakar...»	(49)
silioka 'oihu bizi edo ikarazkoak eginez'	«Kalatxoriek, hagen artetik silioka , luzaroan lagundu zuten...»	(19)
sitsa 'bipia, intsektu egur jalea'	«... sitsak harturiko aulkiak.»	(13)
so egin 'behatu, begiratu'	«...sonbreiru hori armairutik hartu eta buruan ipini duen gizonak bereetxeko leihotik so egin du.»	(71)
solasa 'hizketa, berbeta'	«—Mintzo, mintzo nauk (...) hik solasa nahi baldin baduk.»	(40)
somatu 'igarri, nabaritu'	«...iluntzea abailtzen somatzen zuela.»	(68)
sosa 'dirua'	«...gau sosen xerka irten direnenak eta gau laztanen bila etorrienak.»	(92)
su pindarra 'txinparta'	«Isilean, su pindarren hotsa salbu.»	(35)
sugarra 'dizdira'	«Adats beltz eta lizun bat du (...) eta sugar zurbil eta gori bat begietan, iluntasunean.»	(11)



sumendia 'su eta errauts gorria botatzen	«...irla bakarti bat zen, baina sumendia .»	(22)
sumindu 'haserretu'	«...eta ezin zitekeen irlatxo sumindu hartara gehiago hurbildu, harri urtu eta gorria jaisten baitzen...»	(22)
traketsa 'dorpea'	«Berak ere, bere gorputz traketsaren gatibuan, Ginebra maite du...»	(31)
txahala 'behiaren ume txikia'	«...Palazioko txahaletako bi kabitzen dira barruan...»	(59)
txarrantxa 'linua orrazteko tresna'	«Eta gortara doa Fool, idiak txarrantxaz garbitu eta atarira atera ditu biak, manta marratu banarekin.»	(30)
txepetxa 'txori mota'	«... txepetxak eta abelgorriak begiratu.»	(105)
txintxo 'zintzoa, agiatia'	«...eta ni nauk hire buruaren distortsioa, hire <i>alter ego</i> txintxo .»	(43)
ubela 'more kolorea'	«Itsasbelarrena da itsasoen margoa, eta ubeletik itsaso gorri batera iragan zen <i>Acushnet</i> bentzutua...»	(23)
ubidea 'urak eginiko bidea'	«...aurrera segitu nuen ene bidaian, malkar eta ubide zailtan barrena.»	(101)
uhaina 'uhina, olatua'	«...horregatik suntsitzen da uhainik uhain .»	(13)
uhala 'larruzko hedea'	«Asunek ere, uhalak eskuan, aurea hartu zion asto nekatuari.»	(56)
uholdea 'uriola'	«...landare egarrientzako euria itxaroten iragaten ditugu sargoriak eta euria dakarrenean uholdea dakar...»	(49)
uhuriaka 'uluka,oihu luze biziak egine	«Zakurrak zaunka ari ziren inguruko baserrietan, uhuriaka zaunka baino gehiago.»	(56)
ulua 'oihu luze tristea, uhuria'	«“Zakurrak uluka eta gauhontzak intzirika ari badira, hilurren dago norbait”...»	(56)
umatu 'heldu, ondu'	«Munduaren doi-doi bestaldean umatzen dira gerizak, antzutasuna baino ez da hemen geratu.»	(13)
umela 'erdi lizunduta dagoena,umoegia'	«...errekasto garden bat, landare umel eta harritxo borobilduen artean irristatzen.»	(27)
unatu 'akitu, nekatu'	«...arin doa eskailera ilunetan behera, zango dorpe eta unatuez .»	(76)
undina 'itsas neska, lamina'	«...iluntzean ezkutatu da neskatila, undina baten antzera...»	(74)
unea 'momentu, lipar, eretia'	«...masaila zurbilak gorritu zaizkion unean .»	(31)
urkabea 'urkatzeko, kondena tresnak	«...zuzi batez izeki zituen armagizon batek banan-bana urkabe guziak.»	(107)
urmahela 'urtegitxo	«Ailegatu da ezkurdira eta, urmahel bare eta lorategi urrien artetik, ohizko aukirantz doa urrats geldoz.»	(73)
urritza 'zur mota'	«...bidaian abiatu nintzen, erropa zahar eta urritzezko makilaz.»	(100)
urzalea 'uretarako joera duena'	«Sortzean sagu dira guziak, gero saguak urzale sortuz gero arratoi bilakatzen dira; airezale sortuz gero saguzar.»	(85)
usapala 'usoa baino txikiagoa'	«... usapal zuri bat ikusi nuen.»	(112)



usu 'sarri, askotan, maiz'	«Ez da hona arrotzik usu sartzen...»	(123)
xarma 'enkantua, goxotasuna'	« Xarma ezti eta malenkoniatsu bat dario.»	(11)
xedea 'helburua, jomuga'	«...hautsi da kristalezko bihotza eta erbesteko lurretan barreiatu geratu dira puskak, xederik gabe.»	(34)
xendera 'bideska, bide zidorra'	«...bere zaldi zuriaren gainean, harantz eta honanzko xenderetan .»	(27)
xerka 'bila'	«...neskatila galduaren xerka abiatzea deliberatu du...»	(76)
zaina 'odol hodia'	«Orratzak ditu Mikelek zainetan .»	(90)
zalu 'arin mugitzen dena'	«Harantz abiatu zen Asun, zalu .»	(64)
zarratu 'itxia'	«...uhainak behelaino bero eta zarratua bihurtuaz.»	(22)
zekena 'zikoitza, lukuraria'	«...saindu zeken batentzako intzentsua.»	(87)
zerraila 'sarraila'	«Haizeak ikaritzen ditu dorreko zerrailak eta krisketak...»	(32)
zerraldoa 'hilik / hilkutxa'	«Odola lodi isuri da soinean behera, zangoak flakatu, eta zerraldo geratu da, begiak hertsu gabe.»	(33)
zin egin 'agindu'	«“Ene emaztea barkamen eske etortzen ez bazitzaidan ez nintzela etxera itzuliko zin eginik nuen gainera.”»	(83)
zintzilik 'eskegita, dindilizka'	«...ezkila beltz mutu bat aterpean zintzilik , eta zurezko aulki zahar eta hautsi bi goroldiotzen.»	(15)
zipristina 'txiplistada, ur tantak'	«Noizean behinka, auto arinak iragaten dira faro argiekin eta zipristinak zabalduaz.»	(84)
zirrikitu 'bitartea'	«Gaua abailtzen ari da, leihoaren zirrikituetarik haize hotza sartzen...»	(32)
zohardia 'distiratsua, argitasunez betea'	«Oskarbi urdinak eta zohardi izartsuak ordezkatu ziren, larrosa usaineko oskorriak bitarteko.»	(23)
zola 'behea, zorua'	«...Etxaburu dorreko zurezko zolatan bere oinotsa...»	(32)
zorrotzarria 'lanabesak zorrotzeko harria'	«...ateratzen zuen gerriko zorrotik zorrotzarria .»	(64)
zotina 'arrenkura/dardarazko	«Ez daki trizturazko zotinak ala plazerezko hasperenak diren...»	(31)
zura 'egurra'	« Zur ahulezko hormen barruan...»	(20)
zurbila 'zuriska, kolore gabekoa'	«Adats beltz eta lizun bat du (...) eta sugar zurbil eta gori bat begietan, iluntasunean.»	(11)
zurkaiztu 'tinkatu, irme lotu'	«...oinak hareatan zurkaizturik »	(118)
zurrumurrua 'marmarra, hots nahasia'	«—Oro zurrumurru , bare eta esanahi gabe...»	(39)
zurubia 'eskailera arina, biribilekoa'	« Zurubian behera apaizari galdetu nion ea haur hura erre behar zenentz.»	(105)



zurzuria

'makala' (zuhaitz mota)

«Zaharra da etxaldea, zahartua hobeto esanda, goiz iharturiko **zurzuri** legez.»

(88)

zuzia

'tortxa'

«...**zuzi** batez izeki zituen harmagizon batek banan-bana urkabe guziak.»

(107)